

11 ARRAZOI A30ean GREBARA JOATEKO

1. **Zaintza denon kontua da:** bizitzako une batzuetan zaintza intentsoagoak behar izaten ditugu, baina pertsona guztiok behar dugu zainduak izan egunero. Horregatik, zaintza **oinarritzko eskubide** bat da, eta **unibertsala** izan behar da, hau da, denok izan behar dugu bermatuta, edozein dela norbere familia sarea eta ahalmen ekonomikoa.
2. Zaintza ezin da izan “nor bere kabuz molda dadila”. Ez dago azpiegitura eta zerbitzu publiko nahikorik zaintza beharrei erantzuteko, eta horrek dakar zaintza arazo bihurtzea, eta bakoitzak ahal duen moduan konpontzea. **Erakunde publikoek kalitatezko zaintza zerbitzuak bermatu behar dituzte**, hurbilekoak, eta pertsonen beharrak eta nahiak lehenesten dituztela.
3. Zaintza **ezin da negozio izan**; gure bizitzak ezin dira empresa multinazionalen, putre funtsen eta irabazi asmoa duten entitateen esku egon. Zaintza zerbitzuen lehiaketa publikoek enkante itxura dute: zerbitzua merkeen emango duen empresak irabazten du, ez zerbitzu onena emango duenak. **Zaintza zerbitzuek publikoak** izan behar dute; instituzioek sektorea pribatizatzeari utzi behar diote, eta berriro publifikatzen hasi.
4. Zaintza ezin da oinarritu “familiako emakumeek zaintzean”. Gizonek zaintzeko ardura beren gain hartzen ez dutenean, zaintza horiek emakumeen bizitzen eta bizkarren gain geratzen dira. Zaintza lanak **modu bidezko eta arduratsuan banatu** behar ditugu, gizonen eta emakumeen artean.
5. Adineko emakume askok **bizitza osoan zaindu** dute, eta gainkarga horren ondorioz, nekatuta eta pobretuta iritsi dira zahartzarora. Lan hori sozialki eta ekonomikoki aitortua izatea nahi dugu, eta horregatik exijitzen dugu **pentsio eta bizi baldintza duinak** izatea.
6. Zaintza lanen zati garrantzitsu bat **etxeeko langile egoiliarrek** egiten dute; gehienak emakume migratuak eta arrazializatuak dira, eta egunean 24 orduz eta astean 7 egunez lan egiten dute. Haien lana ere ez dago aitortuta, ez ekonomikoki, ez sozialki. Premiazkoa da bidegabekeria hori amaitzea: atzerritarren legea indargabetzea, zaintzako langile guztiak erregularizatzea, egoiliarren erregimena desagerraraztea eta haien eskubide guztiak aitortzea.
7. Zaintzaile askok, prozesu honetan parte hartze handia izaten ari diren arren, ezin izango dute lanuzterik egin azaroaren 30ean, greba eskubidea urratzen zaielako, gutxieneko zerbitzu abusuzkoekin lan egiten dutelako edo zaintzen dituzten pertsonak zaintzeari utzi ezin diotelako. **Denok ez dugu grebarako eskubidea aitortuta**, eta hori ere salatu nahi dugu greba honetan.
8. Kalitatezko zaintzak **lan baldintza duinak** eskatzen ditu. Zaintzaren lan sektorea funtsezkotzat eta zentralitzat jo behar da, eta zerbitzu eta azpiegitura publiko gehiago behar ditu, langile gehiago, soldata hobeak eta pertsonei arreta emateko denbora gehiago.
9. Guztiok zaindu ahal izateko, **lan mundua berrantolatu** behar dugu: lanaldia murriztu soldatak jaitsi gabe, zaintza baimenak luzatu... Hau da, kontzilitzateak ezin du eragin soldataren parte batí uko egitea.
10. Gure hiriak, herriak eta auzoak gero eta inpertsonalagoak dira: ez ditugu gure auzokideak ezagutzen. Inguruarekiko lotura, zaintza sareak eta **komunitate zentzua** berreskuratu nahi ditugu, eta espazioak bizigarriago egin.
11. Ikuspegi zabalago batetik begiratuta, **zaintzek biziaren dimensio asko biltzen dituzte**: elikadura, etxebizitza, harremanak izateko moduak, osasun mentala eta emozionala... Greba hau

aukera bat da gai horiei guztiei buruz hausnartzeko, eta elkartzeko, zaintza sistema publiko-komunitario bat irudikatzen jarraitzeko eta harantz aurrera egiteko.

10 RAZONES PARA IR A LA HUELGA EL 30N... Y UNA DE PROPINA

1. **Los cuidados nos atañen a todas y todos:** en algunos momentos de la vida los necesitamos con mayor intensidad, pero todas las personas necesitamos cuidados todos los días. Por eso, el cuidado es un **derecho básico**, y debe ser **universal**, es decir, tiene que estar garantizado para todo el mundo, independientemente del tejido familiar y la capacidad económica.
2. Los cuidados no pueden ser un “sálvese quien pueda”. No hay infraestructuras y servicios públicos suficientes para atender las necesidades de cuidados, por lo que éstos se convierten en un problema, y cada quien lo resuelve como puede. **Las instituciones públicas tienen que garantizar servicios de cuidados de calidad**, cercanos, y que prímen las necesidades y deseos de las personas.
3. Los cuidados **no pueden ser un negocio**; nuestras vidas no pueden estar en manos de empresas multinacionales, fondos buitre y entidades con ánimo de lucro. Los concursos públicos de servicios de cuidados parecen subastas: gana la empresa que lo oferte más barato, no la que mejor servicio ofrezca. **Los servicios de cuidado deben ser públicos**; las instituciones deben dejar de privatizar el sector, y volver a publicificarlo.
4. Los cuidados tampoco pueden basarse en que “te cuiden las mujeres de tu familia”. Cuando los hombres no se hacen cargo de su responsabilidad de cuidar, estos cuidados recaen sobre las vidas y espaldas de las mujeres. Tenemos que **repartir los trabajos de cuidado de manera justa y responsable**, entre hombres y mujeres.
5. Muchas mujeres mayores han cuidado durante **toda su vida**, y a cuenta de esa sobrecarga han llegado a la vejez agotadas y empobrecidas. Queremos que ese trabajo sea reconocido social y económicamente, y por eso exigimos que tengan unas **pensiones y condiciones de vida dignas**.
6. Una parte importante de los cuidados recaen sobre las **trabajadoras de hogar en régimen interno**; la mayoría son mujeres migradas y racializadas, que trabajan 24 horas al día y 7 días de la semana. Su trabajo tampoco está reconocido, ni económica ni socialmente. Urge terminar con tanta injusticia: derogar la ley de extranjería, regularizar a todas las trabajadoras de cuidados, erradicar el régimen interno y reconocer todos sus derechos.
7. Muchas cuidadoras, cuya presencia en este proceso está siendo muy importante, no van a poder parar el 30 de noviembre, porque se les vulnera el derecho a huelga, porque trabajan con servicios mínimos abusivos o porque no pueden dejar de cuidar a las personas que cuidan. Esta huelga también va de denunciar que **no todas tenemos reconocido el derecho a huelga** y visibilizar que no todas podemos parar.
8. Unos cuidados de calidad exigen **condiciones laborales dignas**. El sector laboral de cuidados debe ser considerado esencial y central; necesita más servicios e infraestructuras públicas, con más trabajadoras y trabajadores, mejores salarios y más tiempo para atender a las personas.
9. Para que todos y todas podamos cuidar, necesitamos **reorganizar el mundo laboral**: reducir la jornada laboral sin bajar los sueldos, ampliar los permisos de cuidado... En definitiva, que conciliar deje de suponer renunciar a parte del salario.
10. Nuestras ciudades, pueblos y barrios son cada vez más impersonales: ya no conocemos a nuestras vecinas. Queremos recuperar los vínculos con el entorno, las redes de cuidados, el **sentido de comunidad**, y hacer los espacios más vivibles.

11. Desde una mirada más amplia, **los cuidados incluyen muchas dimensiones de la vida**: la alimentación, la vivienda, las formas de relacionarnos, la salud mental y emocional... Esta huelga es una oportunidad para reflexionar sobre todos estos temas, y juntarnos para seguir imaginando un sistema público-comunitario de cuidados y avanzar hacia él.